ONATIKO DUATLOIA

2021.04.24

Oñatiko Duatloia

16:00

Foruen enparantza

5 km. 20 km. 2,5 km.

www.oñatikoduatloia.com

Erlojupeko formatuan

ANTOLATZAILEAK

BABESLEAK

LAGUNTZAILEAK

LIVE

ESKER ONA: Oñati Taberna, Txori, Plazaola, Bizipoz, Urtiagain Jatetxea, Haritza Liburudenda

#OñatikoDuatloia

Antolakuntzaren Oharra

Egoera berezi honetan antolatutako froga honek, neurri bereziak eskatu ditu. Frogaren formatua pentsatu genuenetik ezohiko egoera baten aurrean egongo ginela aurreikusten genuen. Horrela izanik, ahalik eta froga erakargarriena antolatzen saiatu gara hartu beharko genituen neurriak kontutan hartuta.

Azkenean euskadiko federazioko egutegiko lehenengo froga izango da eta horrek ardura berezia piztu du gugan.

Espero dugu guztiok ezarritako arauak zorrotz betetzea. Ez bakarrik gure herria eta gure frogarengatik, baizik eta atzetik etorriko direnengatik. Froga honek balio dezala gainontzeko antolakuntzak ere egoera honetara moldatu eta beraien frogak antolatzera animatu daitezen.

Aloña Mendi K.E.
Triatloia

Nota de la organización

Esta prueba ha sido organizada en una situación especial, y por ello ha necesitado de medidas especiales. Desde que pensamos en el formato de la prueba para esta edición, contábamos con ello, y hemos intentado preparar una prueba lo más atractiva posible teniendo en cuenta las limitaciones que nos podían ofrecer las medidas.

Al final ha resultado ser la primera prueba del calendario de la federación de euskadi, y esto ha incrementado si cabe nuestro grado de responsabilidad.

Esperamos que todas las personas que formamos parte de este evento de algún modo cumplamos con las normas. No solo por nuestro pueblo y nuestra prueba, sino también por las que vendrán después. Que esta prueba sirva para que el resto de organizadores se animen a amoldarse a la situación y organizar sus pruebas.

Aloña Mendi K.E.
Triatloia

Mapa

Plazako gunea parte hartzaileendako bakarrik gorde nahi dugu. Hezi altuak jarriko ditugu box eta meta inguruan, bertara ikuslerik ez gerturatzeko. Parte hartzaileak dagokion orduan dortsala eta txipa jasoko ditu, maskara bat emango zaio eta bizikleta box gunean utzi ondoren berotzeko gunean itxarongo du bere irteera txanda iritsi arte.

Parte hartzaileak berotzeko gunean itxaron eta berotu beharko dute momentu oro maskara jarrita daukatela. Kontsigna eremu honen barruan kokatuta egongo da.

Irteera ordua iristean, irten aurretik, maskara antolakuntzak apropos horretarako kokatuko duen zakarrontzi baten utzi beharko da. Froga osatu, eta metara heltzean, beste maskara bat emango zaio poltsa batekin batera. Poltsa honetan frogako oroigarri txiki bat banatuko dugu zenbait produkturekin batera. Metako gune honetatik berriro ere berotzeko gunera joan beharko da parte hartzailea. Lehenengo 230 parte hartzaileek, bizikleta berotze gunean kokatuko ditugun beste boxe batzuetatik jaso beharko dute. Neurri hau, bukaeran berriro boxetan pilaketak ekiditeko eta bukatu duen parte hartzailea azkenengoaren zain ez gelditzeko hartu da. Ondoren, kontsignatik bere materiala jaso eta hemendik kanpo atera ahal izango da. Azkenengo parte hartzaileek ordea, bizikleta utzi duten box eremu berdinetik jasoko dute.

Ez da dutxa zerbitzurik eskeiniko.

La zona de la plaza se reservará exclusivamente para los participantes. Cerraremos todo el perímetro con valla alta para que los espectadores no se acerquen a seguir la prueba desde la plaza. Los participantes tendrán que coger el dorsal y el chip a la hora que les corresponda y después de dejar la bici en boxes, tendrán que esperar a su salida en la zona de calentamiento sin quitarse la mascarilla en ningún momento.

Cuanto llegue el momento de la salida, depositarán la mascarilla en un cubo de basura que la organización habrá colocado expresamente para este uso. Una vez finalizada la prueba, en la entrada a meta se dará otra mascarilla junto a la bolsa del corredor. Después, el participante tendrá que volver a la zona de calentamiento para recoger sus pertenencias en consigna. Los primeros 230 participantes así mismo, recogerán sus bicicletas en otro espacio de boxes que colocaremos en la zona de calentamiento. El resto, recogerán la bici en el mismo box en donde lo han dejado inicialmente. Este se hará para evitar volver a juntarnos todos a la hora de sacar la bici de boxes y para poder librar al participante una vez de haber terminado la prueba sin tener que esperar al útlimo en llegar a meta.

No se ofrecerá servicio de ducha.


Berotzeko gunea.
Parte hartzaileentzat bakarrik
Oñatiko Udala
Streaming
Irteera
Lehenengo 240 parte
hartzaileen bizikletak
jasotzeko gunea
froga amaitu ondoren
Kontsigna
META
BOX
Sari banaketa
Sorospen
puntua
Bolondresen arreta gunea
Penalty Box
Dortsalen banaketa
WC

Ordutegiak

Jende pilaketak ekiditeko asmoz dortsalak hartu eta boxetan sartzeko ordutegiak zatitu egin ditugu. Modu honetan parte hartzaile guztiak une berean leku berean ez egoteko. Banaketa hau, ezartzeko irizpidea, irteera ordua izan da.

Hiru multzo hauetan banatu ditugu eta dortsalen eta irteera orduen zerrendan ikusi daiteke parte hartzaile bakoitzaren ordu tartea.

Dortsalen banaketa

- 13:15 - 14:00
- 14:00 - 14:45
- 14:45 – 15:30

Boxetara sarrera

- 13:30 - 14:15
- 14:15 - 15:00
- 15:00 – 15:45

.

Horarios

Para evitar aglomeraciones hemos dividido los horarios de recogida de dorsales y entrada en boxes en distintas franjas horarias. Las franjas han sido creadas a partir del horario de salida.

Hemos dividido en estos tres grupos, y el grupo al que corresponde cada participante se puede consultar en el listado de dorsales y horarios de salida.

Reparto de dorsales

- 13:15 - 14:00
- 14:00 - 14:45
- 14:45 - 15:30

Entrada en boxes

- 13:30 - 14:15
- 14:15 - 15:00
- 15:00 – 15:45

Baimenak

Oñati eremu gorrian egonik, parte hartzaile, entrenatzaileak eta antolakuntzan parte hartuko dutenak soilik edukiko dute Oñatira etortzeko baimena. Antolakuntzak beraz, soilik hauendako agiria ateratzeko gaitasuna dauka.

Parte hartzaileen kasuan, izen emateen webgunean zuzenean agiria deskargatu ahal izango dute. Gainontzekoak antolakuntzak prestatuko ditu beharrezko agiriak.

Permisos

A Oñati, estando en zona roja, solo podrán acudir las personas inscritas en el evento, los entrenadores y las personas que formen parte de la organización. Por lo tanto, la organización solo tiene capacidad de expedir justificantes para estos grupos de personas.

En el caso de los participantes, pueden descargar el justificante directamente desde la plataforma de inscripciones. El resto los tramitará la organización.



Lasterketaren jarraipena

Lasterketa herrian bertan jarraitu behar duenak, jende gutxiko guneak bilatzea aholkatzen dugu. Etorri ezingo duenarentzat streaming bidez jarraitu ahal izango da froga ondorengo estekan: https://www.youtube.com/watch?v=6jm8VmFvG3c

Lasterkarien denborak ere zuzenean jarraitu ahal izango dira.

Seguimiento de la prueba

A los espectadores que estén en el pueblo, aconsejamos que busquen lugares poco concurridos. Para las personas que no puedan venir, lo podrán seguir tanto a través de streaming como a través del sistema de cronometraje que permitirá seguir los parciales en directo.

https://www.youtube.com/watch?v=6jm8VmFvG3c

Sari banaketa

Irteerak kategoriaka antolatu dira, kategorien sari banaketak metara iritsi ahala banatzen joateko. Froga ondoren soilik froga osoko lehenengo hiru neska eta mutilei egingo zaie sari banaketa. Kategoria bakoitzean irabazteko moduan zaudetenei beraz arreta berezia jartzea eskatzen dizuegu zuen lasterketa ondoren, plazan jarrita dagoen kioskoan zuen saria jaso dezazuen.

Reparto de premios

Las salidas se han organizado por categorías con el objetivo de ir repartiendo los premios a medida que termine cada una de las categorías. La entrega de premios final será con los tres primeros de cada sexo. Por lo tanto pedimos especial atención a los que tengáis posibilidades de ganar en vuestra categoría para que os acerquéis a recoger vuestro premio en el quiosco que está montado en la plaza.

Gozatu lasterketaz

Neurri asko jarri ditugu egoerak horrela eskatuta. Baina froga honen azken helburua guztiok kirolaz gozatzea da. Segurtasun neurriak mantenduz beraz, egun zoragarri bat igaro dezazuela gure Oñati herrian!

Disfrutad de la prueba

Hemos tomado muchas medidas exigidas por la situación en la que estamos. Pero no olvidemos que el objetivo final de esta prueba es que podamos disfrutar a través del deporte. Por lo tanto, siguiendo todas las medidas, ¡esperamos que paséis un dia estupendo en Oñati!